

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2019ko otsailaren 16tik 22rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2019/02/18

- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena da. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Arrain kontserbei eta gazituei buruzko Hitzarmen Kolektiboaren zuzentzea eta 2019ko soldaten berrikuspena erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000685011981). **1 or.**

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 2019/02/20

- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Eraikuntzaren Hitzarmen Kolektiboaren 2019ko soldaten berrikuspena erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000715011981). **10 or.**
- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Eraikin eta Lokalen Garbiketa sektoreko Hitzarmen kolektiboaren 2019ko soldaten berrikuspenak erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48001445011981). **4 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/02/20

- 2019ko otsailaren 6ko Ebazpena, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez gizarte-ekintza eta esku-hartze arloko Estatuko hitzarmen kolektiboa aldatzeko akordioaren akta erregistratu eta argitaratzen da. **2019-2330 xedapena - 9 or.**
- 2019ko otsailaren 6ko Ebazpena, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez turroi eta mazapanen industrien sektoreko Estatuko hitzarmen kolektiboari dagozkion Auzitegi Nagusiko Lan-arloko Salaren epaia eta argitze-autoa erregistratu eta argitaratzen dira. **2019-2331 - 21 or.**

Estatuko Aldizkari Ofiziala 2019/02/21

- 2019ko otsailaren 11ko Ebazpena, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez Contact Center sektorearen estatu-esparruko II. hitzarmen kolektiboko 2019. urteko soldata-taulei buruzko akordioaren akta erregistratu eta argitaratzen da. **2019-2407 xedapena - 3 or.**
- 2019ko otsailaren 11ko Ebazpena, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez barazki-kontserbak fabrikatzeko hitzarmen kolektiboko 2019. urteko soldata-taulei buruzko akordioaren akta erregistratu eta argitaratzen da. **2019-2408 xedapena - 3 or.**
- 2019ko otsailaren 11ko Ebazpena, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez paper eta arte grafikoen komertzioaren zikloko Estatuko hitzarmen kolektiboko 2018. urteko soldata-taulen berrikuspena erregistratu eta argitaratzen da. **2019-2409 xedapena - 3 or.**
- 2019ko otsailaren 11ko Ebazpena, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez trenbide-zerbitzuen enpresetako bezeroaren arretarako eta kanpoko zerbitzu osagarrien sektoreko IV. hitzarmen kolektiboko 2019. urteko soldata-taulen berrikuspena erregistratu eta argitaratzen da. **2019-2410 xedapena - 3 or.**
- 2019ko otsailaren 11ko Ebazpena, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez erauzketa-industrien, beirako eta zeramikako industrien eta material horietako merkataritza eskusibistako industrien Estatuko XXI. hitzarmen kolektiboko 2018. eta 2019. urteko soldata-taulen berrikuspenak erregistratu eta argitaratzen dira. **2019-2411 xedapena - 3 or.**
- 2019ko otsailaren 11ko Ebazpena, Lan Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bitartez kirol-instalazioen eta gimnasioen IV. hitzarmen kolektiboko 2019. urteko soldata-taulak erregistratu eta argitaratzen dira. **2019-2412 xedapena - 3 or.**

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 22/02/2019

- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Metalaren Merkataritzako Hitzarmen Kolektiboaren 2019ko soldaten berrikuspenak erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48000575011981). 5 or.
- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko Gasolina Zerbitzuguneko Hitzarmen Kolektiboaren 2019ko soldaten berrikuspenak erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48004095011994). 5 or.
- Erabakia Lan eta Justizia Saileko Lan eta Gizarte Segurantzako Bizkaiko lurralde ordezkariarena. Honen bidez ebazten da Bizkaiko bidaiaren garraio erregular eta diskrezionalen Zerbitzuen Hitzarmen Kolektiboaren 2019ko soldaten berrikuspenak erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea (hitzarmen kodea 48002335011981). 5 or.

II.- XEDAPEN ARAUEMAILEAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2019/02/16

- **KANPO ARAZOETAKO, EUOPAR BATASUNEKO ETA LANKIDETZAKO MINISTERIOA - Nazioarteko akordioak.** -2019ko urtarrilaren 21ean Madril en egindako Akordioa, Espainiako Erresumaren eta Britainia Handiko eta Ipar Irlandako Erresuma Batuen artekoa, herrialde batekoak diren eta bestean bizi diren biztanleek herrialde horietako hauteskunde jakin batzuetan parte hartzeari buruzkoa, behin-behinean aplikatzea. 2019-2143 xedapena - 4 or.
- **OGASUN MINISTERIOA. Fabrikazioko zerga bereziak, hidrokarburo batzuen txikizkako salmenten eta balio erantsiaren gaineak.** - Urtarrilaren 31ko HAC/135/2019 Agindua, azaroaren 2ko EHA/3482/2007 Agindua aldatzen duena, zeinaren bitartez eredu zehatz batzuk onartzen diren, eta kudeatzeko arau batzuk bategiten eta eguneratzen diren, fabrikazioko zerga bereziei eta hidrokarburo jakin batzuen txikizkako salmentaren gaineke zergari dagokionez, eta, orobat, maiatzaren 11ko EHA/1308/2005 Agindua aldatzen den, horrek Balio Erantsiaren gaineke Zergaren deklarazio-likidazioko 380 eredu onesten baitu inportazioei asimilatutako operazioetan, eta, aurkezteko lekua, era eta epea zehazteaz gain, finkatu egiten baititu bide telematikoz aurkezteko prozedura eta baldintza orokorrak. 2019-2144 xedapena - 15 or.

2019/02/20

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. – Lur gaineko garraioak.** - Otsailaren 15eko 70/2019 Errege Dekretua, zeinaren bitartez Lurreko Garraioen Antolamendurako Legea eta beste arau batzuk aldatzen diren –errepideko garraioko ibilgailuen gidarien prestakuntzaren, errepideko garraioei buruzko kontrol-dokumentuen, errepideko osasun-garraioaren, salgai arriskutsuen garraioaren eta Errepideko Garraioaren Batzorde Nazionalaren arlokoak. 2019-2289 xedapena - 111 or.

2019/02/21

- **ESTATUKO BURUZAGITZA**
 - **Kode Penal.** - Otsailaren 20ko 1/2019 Lege Organikoa, zeinaren bitartez Kode Penalari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen den, finantza- eta terrorismo-arloetan Europar Batasuneko zuzentarauen transposizioa egiteko eta nazioarteko auziei ekiteko. 2019-2363 xedapena - 15 or.
 - **Enpresa-arloko sekretuak.** - Otsailaren 20ko 1/2019 Legea, enpresa-arloko sekretuei buruzkoa. 2019-2364 xedapena - 15 or.
- **GORTE NAGUSIAK**
 - **Premiazko neurriak.** - 2019ko otsailaren 13ko Ebazpena, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bitartez hau argitaratzea agintzen den: urtarilaren 11ko 1/2019 Errege Lege-dekretua baliozkotzeko Akordioa, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren eskumenak Erkidegoko Zuzenbidearen ondoriozko eskakizunetara egokitzeko premiazko neurriak dituen, elektrizitatearen eta gas naturalaren barneko merkaturako arau erkideei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/72/EE eta 2009/73/EE Zuzentarauei dagokienez. 2019-2365 xedapena - 1 or.

- **JUSTIZIA MINISTERIOA**

- **Erregistro Zibila.** - 2019ko otsailaren 18ko Instrukzioa, Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiarena, haurduntza subrogatuaren bidez jaiotakoen filiazioa erregistratzeko erregimena eguneratzeari buruzkoa. 2019-2367 xedapena - 1 or.

2019/02/22

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN MINISTERIOA. Krimen antolatua eta Delinkuentzia larria.** - Otsailaren 21eko PCI/161/2019 Agindua, zeinaren bitartez Krimen Antolatuaren eta Delinkuentzia Larriaren kontrako Estrategia Nazionala onesten duen Segurtasun Nazionaleko Kontseiluaren Akordioa argitaratzen da. 2019-2442 xedapena - 27 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2019/02/18

- **TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA.** - HUTS-ZUZENKETA, honako dekretu honena: 200/2013 Dekretua, uztailaren 9koa, turismo-aterpetxeak antolatzen ditu. 832 xedapena - 1 or.

2019/02/19

- **LEHENDAKARITZA**

- 1/2019 LEGEA, otsailaren 14koa, diru-sarrerak bermatzeko errentaren arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei buruzkoa. 867 xedapena - 2 or.
- 2/2019 LEGEA, otsailaren 14koa, lansarien arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei eta luzapenaren beste alderdi batzuei buruzkoa. 868 xedapena - 4 or.
- 3/2019 LEGEA, otsailaren 14koa, hezkuntza alorrean 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei buruzkoa. 869 xedapena - 21 or.

2019/02/21

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA. – OSASUN SAILA**

- AGINDUA, 2019ko otsailaren 5koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez jatorri begetaleko produktuen sektoreko establezimenduetako baldintza higieniko eta sanitarioak egokitzeko arau tekniko espezifikoak onartzen baitira. **920 xedapena – 11 or.**
- AGINDUA, 2019ko otsailaren 5koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena eta Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira okintza, pastelgintza eta iringintzako produktuen sektoreko establezimenduetako baldintza higieniko-sanitarioak egokitzeko arau tekniko espezifikoak. **921 xedapena – 9 or.**

- **SEGURTASUN SAILA**

- 17/2019 DEKRETUA, otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen du. **922 xedapena – 82 or.**

2019/02/22

- **SEGURTASUN SAILA.** - 21/2019 DEKRETUA, otsailaren 12koa, zeinaren bidez bigarrenaz aldatzen baita larrialdi-egoerei aurre egiteko jarduera, zentro edo establezimendu zehatz batzuei ezartzen zaizkien autobabeserako betebeharrak arautzen dituen Dekretua. **955 xedapena – 19 or.**

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2019/02/20

- **OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2019 Foru Dekretua, otsailaren 12koa. Onestea balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen erraztuaren arautzea 2019rako. **469 xedapena - 31 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2019/02/19

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Bizkaiko Foru Aldundiaren 6/2019 FORU DEKRETUA, otsailaren 12koa, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 3ko 91/2018 Foru Dekretua aldatzen duena. Foru dekretu horren bidez, ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren katastro-balioa finkatzeko arau teknikoak onartzen dira. **3 or.**

2019/02/20

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 293/2019 FORU AGINDUA, otsailaren 11koa. Honen bidez, Zerga Berezien Unitatea sortzen da eta haren antolaketarako eta funtzionamendurako arauak ematen dira. **4 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2019/02/20

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 3/2019 Foru Araua, otsailaren 11koa, 2019. urterako zerga neurriak onartzen ditu. **889 xedapena – 37 or.**

2019/02/21

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** - 3/2019 Foru Dekretua, otsailaren 19koa, zerga betebeharrak formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua aldatzekoa. **1137 xedapena – 4 or.**

E.B.A.O. (Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala): Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO